

Jon Irazustaren hitzak
(2009-03-23)

Isabel, Itziar, Jone eta Xabier, zuen baimenarekin, Iñakiri zuzendutako eskutitza irakurriko dut.

Iñaki adiskidea,

Utzi gaituzu, zure modura joan zara, isilik eta zaratarik egin gabe. Tamalak betetzen gaitu, baina ez dizut idatzi behar gure tristura adierazteko, zure ingurukoek oneza ez baitzenuen batere atsegin. Gutun hau eskerrak emateko da.

Eskerrak, une honetan ordezkatzeko dudak erakundearen partetik. Euskal Herriko Unibertsitatea zurekin zorretan dago. Argi eta garbi esan dezaket euskararen egoera gure unibertsitatean ez litzatekeela gaur egungoa hainbat eta hainbat esparrutan, zuk egindako lanik gabe.

Eskerrak baita ere lankide zintzoa izan zarelako. Irakasle bikaina izan ez ezik, beti laguntzeko prest zeunden; eta batez ere, zure erosotasuna alde batera utziz, zure lankideen arazoak konpontzeko prest.

Eskerrak ere bai, laguntzat izan nauzulako, ezer eskatu dizudan bakoitzean nirekin eta nire ondoan izan zara, azken, azken uneetaraino.

Hau guztiarengatik, eta izan zaren pertsona ona izan zarelako, mila esker Iñaki. Zure lana, jokabidea eta izaera hemen gelditzen garen guztiontzat eredu izan bedi.

Besarkada handi bat